

Dena dugulako aldatzeko

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Maistrak esan zuen: idatzi ikusten duzuna. / Baina ikusten dudanak ez nau emozionatzten. / Maistrak erantzun zuen: / Aldatu ikusten duzuna». Louise Glück Literatura Nobel saridunaren idatzi horrek hitz gutxitan aunitz transmititzen du. Heziketaren muina izan beharko lukeena biltzen du: norbere dohaina aurkitzen eta garatzen laguntzea. Gure barreneko pasioari ere dei egiten dio, gauzak gustuz egiten badira hobeki ateratzen direlako. Hobe da alde

guztietatik begiratuta: lehenik eta behin, zuk gozatzen duzu eginez, eta emaitzan nabaritzen da gero. Sukaldean aritzen garenean bezala. Osasuna ala dirua, dilema horretaz eztabaidatzen dugun bitartean ezin dugu ahortzi amesten, irudikatzen eta sortzen dugunak ere egiten gaituela pertsona eta arnasten dugun airea bezainbertze behar dugula kultura. Etxeratu gintuztenetik urtebetera, inoiz baino premiazkoagoa da Martxoaren 8an kaleak hartzea, dena dugulako

aldatzeko. Eta pandemiak bertze aldera ezin begiratzeko moduan bistartu duelako behar bat, gainerako guztiak biltzen dituen: zaintzea. Osasuna, zainketak, langileak, negozio txikiak, harremanak, hizkuntza, kultura eta kulturgileak, ingurumena, herriak, hezkuntza, eguneroko plazer txikiak... pertsonak, finean. Hel diezaiegun pasioz krisiak zabaltzen dizkigun aukera berriei, sentitzen dugun beldurra ukatu gabe, beldurrarekin ere aldaketa handiak lortzen ahal direla jakinda. •

Euskal polizia

**Xabier Mikel
Errekondo**

Polizia polizia da. Komeni zaigu ez ahaztea. Birus madarikatuaren aitzakiapean protagonismo apartekoa hartu du. Bereziki oldarkor. Agian propio gizartearen “fokua” bereganatzeko, agian covid-19aren kudeaketa negargarriaren fokua desbideratzeko. Gauza ilun askotarako baliatzen da polizia... «Zure segurtasunerako ari gara lanean...», salatu zuen Hertzainak 8oko hamarkadan, baina «zu ere izan zaitezke polizia», izan ere, orain zure osasunagatik ari dira... *(no comment)*. Osasunaren alde egitea da nonbait zaindu behar lituzketen herritarren begi

eta masailak lehertzea, edo langileak kaleratuak direnean ehunka familiari gainera datorkien dramaren aurrean beren tresna bakarrekin, grebarekin eta konfrontazioarekin, borrokatzen direnean aurpegi eta besoak apurtzea. Enpresarien biolentzia ez du ikusten poliziak, gutxiago poliziaren arduradun politikoei. Errobiren garaitik ez da ezer aldatu... «Gure nagusia, gaixo nagusia...», lehen bezala langileak kaltetu eta kolpatuak, orain gainera kriminalizatuak; izan ere, biolentzia da nagusiaren biolentziaz defendatzea. Erkoreka polizia zaindaria eta Marlas-ka ministroak poliziaren jarduna gorai

patu dute, eskerrak Urkullu lehendakariak barkamena eskatu zuen... (JuanCar errege emerituaren gero eta antz gehiago hartzen diot...); hori bai, barkamen elitista, kolpatua ez baitzen langile xumea... Beraz, Euskal Estatu berrian zer polizia eredu sortuko genuke? Nago inportante-ena Polizia Zaindaria bera dela, ze poliziak zaunka egiten du eta hozka egitea du gustuko, baina Zaindaria jakin behar du uhala ongi erabiltzen, orain luze, orain labur, baina beti-beti mozalarekin eta ongi lotuta. Herritar hauskorrenak babestu lehenik. •